

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO
BILERA**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
AYUNTAMIENTO**

2012ko ekainaren 15a

15 de junio de 2012

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamabigarren urteko ekainaren hamabortzean, ortzirala, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Ainara Flores Compains, Severiano Choperena Machicote, Izaro Mitxelena Rekondo, Jose E. del Río Echeverria, José Luis Echegaray Andueza, José Esteban Echeveste Apezteguía, Pedro Apezteguía Alzugaraya, Victoriano Ruiz Álvarezeta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes quince de junio del año dos mil doce, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, doña Ainara Flores Compains, don Severiano Choperena Machicote, doña Izaro Mitxelena Rekondo, don José E. del Río Echeverria, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Pedro Apezteguía Alzugaray, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.

Idazkari-lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira:

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION
AKTAREN ONESPENA.**


Osoko bilkurak aho batez azken bilkuraren akta onartu du, 2012ko maiatzaren 18koa.

**1 - APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 18 de mayo de 2012.

2 - KATASTROKO AKATS BATEN

2 - CORRECCIÓN DE ERROR



ZUZENKETA (JESUS SUSPERREGUI ETA AGUEDA INDA).

Azaroaren 14ko Alkatetzaren 442/2011 zenbakidun Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen zatiketa bat, lehengo 3 poligonoko 288 partzelari eragiten ziona. Horren ondorioz, dagoeneko katastroan islaturik dena, lehengo 288 partzela ezabatu zen eta haren ordeztu egin dira 642 eta 643 partzelak.

Katastro aldaketa horren xedea 642 partzelaren titulartasuna aldatzea zen (Lesakako Udaleko komunal gisa agertzen baita), Jesus Susperregui Oronoz eta Agueda Inda Goñi jaun-andreek frogatu egin baitute partzela horren titularrak direla, eta hala agertzen da inskribatuta Jabetza-Erregistroan.

Bertzalde, 12/2006 Foru Legeak, azaroaren 21ekoak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoak, bere 25 artikuluan, 3 atalean, honako hau dio Hiritar Aberastasunaren Erregistroko oinarritzko datuak aldatzeko prozedurari buruz:

"Aldaketa grafiko batek edo titulartasunaren aldaketa batek eragina baldin badu Lurralde Aberastasunaren Erregistroan herri ondasun gisa inskribatutako lurzatietan, beharrezkoa izanen da titular moduan ageri den toki entitateko gobernu organo gorenak hartutako erabakia, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan herri ondasunak aldezteko ahalmena duen unitate organikoaren aldeko txostena ere."

Horri buruz, Udalean dago Nafarroako

CATASTRAL (JESÚS SUSPERREGUI Y ÁGUEDA INDA).


La Resolución de Alcaldía número 443/2011, de 14 de noviembre, aprobó una segregación que afectaba a la antigua parcela 288 del polígono 3. Como consecuencia de la misma, que ha sido ya plasmada en el catastro, la antigua parcela 288 fue anulada y en su lugar se han creado las parcelas 642 y 643.

El objeto de dicha modificación catastral era el de realizar el cambio de titularidad de la parcela 642 (que figura como comunal del Ayuntamiento de Lesaka) ya que don Jesús Susperregui Oronoz y doña Agueda Inda Goñi han acreditado que son titulares de la misma y así se halla inscrita en el Registro de la Propiedad.

Por otra parte, la Ley Foral 12/2006, de 21 de noviembre, del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra, establece en su artículo 25, apartado 3, sobre procedimientos de modificación de los datos básicos del Registro de la Riqueza Urbana, lo siguiente:


"Cualquier modificación gráfica o de titularidad que afecte a parcelas inscritas en el Registro de la Riqueza Territorial como bien comunal, requerirá el acuerdo adoptado por el máximo órgano de gobierno de la entidad local que obre como titular, y el informe preceptivo favorable de la unidad orgánica de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra que tenga asignadas las facultades de defensa de los bienes comunales".

A este respecto, obra en el Ayuntamiento un




Gobernuko Komunalen Atalak emaniko txostena, 2010/07/29koa, eta horretan, partzela honi dagokionean, zera dio: "...partzela hau partikularizat jo behar da...", eta, horregatik, "Lesakako Udalak tramiteak hasi beharko ditu partzelaren titulartasuna aldatzeko".

Geroago, Komunalen Atalak, Udal honek eskatuta, bertze txostena egin zuen, 2011/10/13koa, eta hartan ondorioztatzen da "Komunalen Atal honetatik ez dela eragozpenik antzematen katastroa moldatzeko espedientearekin segitzeko, horren bitartez Lesakako 3 poligonoko 288 partzelaren zati bat Jesus Susperregui Oronoz eta Agueda Inda Goñi jaun-andreen eskura pasatuko baita...". 3 poligonoko 288 partzelaren zatia, gaur egungo poligono bereko 642 partzela da.




Horrela, bada, orain Udaleko Osoko bilkurari dagokio, toki entitateko gobernu organo gorenaren den heinean, dagokion erabakia hartzea, 3 poligonoko 642 partzelaren titulartasun aldaketa ahalbidetuko duena.

Hori dena ikusita, Osoko bilkurak, aho batez erabaki du:



1 - Lesakako katastroko 3 poligonoko 642 partzelaren titulartasunaren aldaketa onartzea. Gaur egun partzela hori Lesakako Udaleko komunal gisa ageri da, eta Jesus Susperregui Oronoz eta Agueda Inda Goñi jaun-andreen izenera pasatuko da.



2 - Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuari

informe de la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra, de fecha 29/07/2010, en el que, en relación a esta parcela, indica que "...esta parcela debe considerarse particular..." y que, por ello, "...el Ayuntamiento de Lesaka deberá iniciar los trámites para modificar la titularidad de la parcela".

Posteriormente, la Sección de Comunales emitió, a petición de este Ayuntamiento, nuevo informe, de fecha 13/10/2011, en el que concluye que "desde esta Sección de Comunales no se ve impedimento en continuar con el expediente de modificación catastral en el cual parte de la parcela 288 del polígono 3 de Lesaka pase a propiedad de D. Jesús Susperregui Oronoz y Dña. Agueda Inda Goñi...". La parte de la parcela 288 del polígono 3 se refiere a la actual parcela 642 del mismo polígono.

Así pues, corresponde ahora al Pleno del Ayuntamiento, como máximo órgano de gobierno de esta entidad local, la adopción del oportuno acuerdo que posibilite el cambio de titularidad de la parcela 642 del polígono 3.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1 - Aprobar el cambio de titularidad de la parcela 642 del polígono 3 del catastro de Lesaka, que actualmente figura como comunal del Ayuntamiento de Lesaka, de forma que pase a nombre de don Jesús Susperregui Oronoz y doña Agueda Inda Goñi.

2 - Notificar el presente acuerdo al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra y a

eta aipatu jabeei.

los citados propietarios.

**3 - LESAKAKO ARGITERIA
PUBLIKORAKO AURREZKI- ETA
ERAGINKORTASUN ENERGETIKOARI
BURUZKO PLANA.**

**3 - PLAN DE AHORRO Y EFICIENCIA
ENERGÉTICA PARA EL ALUMBRADO
PÚBLICO DE LESAKA.**

Gai hau eztabaidatu egin zuen Udalak
2012ko maiatzaren 18an eginiko Osoko bilkuran.

Este tema fue ya tratado por el Pleno del
Ayuntamiento en sesión celebrada el día 18 de mayo
de 2012.

2011ko abenduaren 15eko ebazpenaren
bitartez, Nafarroako Gobernuak Enpresaren eta
Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2012ko
ilbeltzaren 10eko 6. Nafarroako Aldizkari
Ofizialean argitaratu zena, onartu egin zen argiteria
publikoan energia aurrezteko 2011-2012 kanpainako
jarduketetarako diru-laguntzen deialdia.

Mediante Resolución de 15 de diciembre de
2011, del Director General de Empresa e Innovación
del Gobierno de Navarra, publicada en el Boletín
Oficial de Navarra nº 6, de 10 de enero de 2011, fue
aprobada la convocatoria de subvenciones en
actuaciones de ahorro energético en alumbrado
público de la campaña 2011-2012.

“Lesakako (Nafarroa) kanpoko argiteria
publikoaren auditoria energetikoa” agiria aztertu
ondoren, Carlos Ros Ingenieros S.L.k idatzia,
Hirigintza-Batzordeak, ekainaren 11n eginiko
bileran, alde informatu zuen espedientea eta haren
tramitazioa Nafarroako Gobernuaren aitzinean.

Examinado el documento “Auditoría
energética del alumbrado público exterior de Lesaka
(Navarra)”, redactado por Carlos Ros Ingenieros
S.L., la Comisión de Urbanismo, en reunión
celebrada el día 11 de junio, informó
favorablemente el expediente y su tramitación ante
el Gobierno de Navarra.

Geroago, ondoko dokumentu hauek jaso
dira, hauek ere Carlos Ros Ingenieros S.L.-k eginak:

Posteriormente se han recibido estos
documentos, elaborados igualmente por Carlos Ros
Ingenieros S.L.:

- “Lesakako argiteria publikoaren aurrezki
energetikoari eragiteko planaren
proposamena”.
- “Txosten baloratua, Alkaiaga industrialdeko
instalazioa erreformatzeko, Lesakako
(Nafarroa) argiteria publikoan”, zenbatekoa
30.085,54 €koa izanik (BEZ barne).

- “Propuesta plan de acción de ahorro
energético del alumbrado público de Lesaka”.
- “Memoria valorada para la reforma de la
instalación del polígono Alkaiaga en el
alumbrado público de Lesaka (Navarra)”,
cuyo importe asciende a 30.085,54 € (IVA

Hori dena ikusita, Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1 – Lesakako argiteria publikorako aurrezki-eta eraginkortasun energetikoari buruzko plana onartzea.

2 – Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuko Enpresaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiari eta Carlos Ros Ingenieros S.L. enpresari.

4 – ROSARIO LASA ECHARTEK ESKATURIKO OIHAN-PROBETXAMENDUA.

Azterturik 2012ko maiatzaren 11n aurkezturiko eskaera (1.329. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1 – Nafarroako Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Rosario Lasa Echarte jaunak eginiko eskaera, Frain alderdian dagoen 5.583 m²ko lur-eremu batean dauden akazien entresaka egiteko. Katastroko 3 poligonoko 362 partzelaren P azpi-partzelaren zati bati dagokio (Probetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2012/25)

2 – Interesatuari oroitaraztea lur-eremua komunal agertzen dela udal katastroan, eta horregatik, erabaki honek ez duela deus adierazten haren jabetzari dagokionez.

5 – AURREKONTUAREN ALDAKETA

includo).

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar el plan de ahorro y eficiencia energética para el alumbrado público de Lesaka.

2º) Que se notifique el presente acuerdo a la Dirección General de Empresa e Innovación del Gobierno de Navarra y a Carlos Ros Ingenieros S.L.

4 – SOLICITUD DE APROVECHAMIENTO FORESTAL REALIZADA POR ROSARIO LASA ECHARTE

Examinada la instancia presentada con fecha 11 de mayo de 2012 (entrada nº 1.329 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Rosario Lasa Echarte, para realizar una entresaca de acacias en un terreno de 5.583 m², ubicado en el paraje de Frain. Corresponde a parte de la subparcela P de la parcela 362 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2012/25).

2º) Recordarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

5 – APROBACIÓN INICIAL DE LA

- HASIERAKO ONESPENA (ESPENDIENTE ZENBAKIA: 4/2012).

Maiatzaren 25ean kontu-hartzaileak eginiko txosten batean, adierazten du beharrekoa dela transferentzia bat egitea 2012. urterako Udalaren aurrekontuan.

Hain zuzen ere, 5.015,00 €ko partida bat sortu behar da, argiteria publikoaren auditoria energetikoari zuzendua.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa aztertuta, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazio Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udaltzatik, aho batez honako hau erabaki du:

1.) Hasiera batean onartzea aurrekontua aldatzeko 4/2012 espedientea.

2.) Espedientearen hamabortz egun baldiodunean jendaurrean paratzea, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkien taulan iragarki bana paratuta, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

6 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guzietan pasatu zaie posta elektronikoz (edo paperean, posta elektronikorik ez dutenei) azken bileratik gaur arte Alkatezaren emaniko ebazpenen zerrenda (220.etik 258.era, biak barne).

Ondoren eta Toki-Entitateen Antolamendu,

MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO (EXPEDIENTE 4/2012)

En un informe emitido por el interventor con fecha 25 de mayo, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2012.

Se trata concretamente de crear una partida de 5.015,00 €, destinada a la auditoría energética del alumbrado público.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:


1º) Dar su aprobación inicial al expediente de modificación presupuestaria 4/2012.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

6 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (números 220 a 258, ambos inclusive).

Seguidamente y conforme a lo establecido



Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udaltzarak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik aurkeztu.

7 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA.

Ez da egin.

Aipaturiko egunaren ilunabarreko zortziak eta lau minutu direla, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

7 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

Siendo las veinte horas y cuatro minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.